



## 2. MERKATUAREN SEGMENTAZIOA

Gure produktua hostalaritzako sektorearentzat dago zuzenduta, baina batez ere gaueko sektorerako, hots, diskotekak eta tabernak. Baina horretaz gain, aisialdian edariak edaten dituen edozein pertsonak aukera izango du gure edalontziak erosteko, beraiek nahi duten momentuan erabiltzeko.

Gure enpresa Bizkaian, Euskal Herrian, kokatuko da. Honekin hasteko, durangaldean zehar zalbalduko gara eta gure ideia hedatuko dugu. Kokatuko garen ingurunea aztertuz, gure bezeroak durangoko, atxondoko, abadiñoiko eta elorriko tabernak izan daitezke, baita PUBak eta diskotekak ere; esaterako, durangoko Sweet & Vicious, elorriko Bikale edota atxondoko Penalti taberna. Aitzitik, azken kontsumitzaile modura gazteak izango dira ziurrenik gure bezero nagusiak (16-30 adin tartekoak). Izan ere, adin hauetan lagunekin tabernetara eta diskoteketara joaten dira edatera.

Gure produktuaren kontsumitzaileen artean, esan bezala, gazteak eta diskotekak izango dira nagusi. Hona hemen guk egindako kontsumitzaile kopuruaren estimazioa:

DISKOTEKAK	TABERNAK	GAZTEAK	BESTELAKOAK
%45	%30	%17	%8

Honetaz gain, aipatu behar dugu gure enpresa merkatu nitxo batean kokatzen dugula. Gure ustez produktu hau erosiko edo erabiliko duten bezeroak ezaugarri zehatzak eta berezituak dituzte, sektore konkretu batzuetara bideratutako produktua sortzen dugulako eta hostalaritza sektorea delako gure oinarrizko merkatua.

